

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroa bigarrena da hezkuntza-bikaintasunaren 2011ko zerrendan

*Txostenean autonomia-erkidegoetako hezkuntza-politikak konparatu dira*

Jueves, 28 de abril de 2011

Nafarroa hezkuntza-bikaintasunari dagokionez bigarren autonomia-erkidegoa da Espainian, Profesionales por la Ética entitate independenteak egindako

["Hezkuntza-politikak Espainian: hezkuntza-bikaintasunaren 2011ko zerrenda" txostenaren](#) arabera. Eraitza hori 2007ko aurreko txostenean lortutakoaren antzekoa da.

Azterlanak Hezkuntza Ministerioko, EINeko, ELGAko eta Eurostateko zifra ofizialak hartu ditu oinarri. Horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa lehen tokian dago, 8,71ko puntuazioarekin. Horren ostean datoz Nafarroa (8,02), Gaztela eta Leon (7,70), Asturias (7,01), Madril (6,53), Kantabria (6,01), Aragoi (5,84), Katalunia (5,68), Galizia (5,58), Errioxa (5,36), Valentzia (3,44), Murtzia (3,02), Extremadura (2,99), Andaluzia (2,51), Gaztela-Mantxa (2,44), Balearrak (2,28) eta Kanariak (1,90).

Txostena egiteko, bederatzi taldetan bildutako 58 adierazle ebaluatu dira (eskolatzea, graduazioa, egokitasuna, ikasketak garaia baino lehen bertan behera uztea, gizarte-ekimena, gastu publikoa, irakasleak eta baliabide osagarriak). Horietako bakoitzean zerrenda berezia egin da, adierazle horien batez besteko haztatuaren bidez lortutako eraitza oinarri hartuta.

Nafarroa buru da egokitasun-tasari dagokionez (adinaren arabera dagokion ikasturtean izena emanda duten ikasleen ehunekoa), PISA 2009 txostenaren eraitzak kontuan hartuta, baita irakasleen eskuragarritasunari dagokionez ere (ikasleen kopurua irakasle bakoitzeko, besteak beste).

Bestalde, azterlanean beste arlo batzuk ere aztertu dira, hala nola gastu publikoa eta eskolatzea, eta horietan Nafarroa bigarren lekuan agertzen da. Arlo horien barruan beste adierazle batzuk hartzen dira kontuan, besteak beste, eskola-bizitzaren itxaropena sei urtean edo ikasle bakoitzeko gastu publikoa.

Graduazio-tasari (DBHn, Batxilergoan eta goi mailako hezkuntzan) eta ikasketak garaia baino lehen bertan behera uzteari erreparatuz, Foru Komunitatea hirugarren lekuan dago.

Horrez gain, txostenean hezkuntza arloko gastuaren efizientzia aztertu da, ikasle bakoitzak xahututako zenbatekoa, eskolako eraitzak eta emandako baliabideak konparatuz. Ikasle bakoitzarengan egindako

inbertsioari dagokionez, autonomia-erkidego eraginkorrenak Gaztela eta Leon (%59,5), Euskal Autonomia Erkidegoa (%58,3), Nafarroa (%53,6) eta Madril (%50,2) dira, 100 puntutik 50 baino gehiago lortu baitituzte. Gainerako hamahiru eskualdeak azpitik geratu dira.

Txostenaren arabera, baliabide informatikoak autonomia-erkidego guztietan hobetu dira. Hala ere, geletako ordenagailu kopurua soilik baloratu da, eta beste erreminta batzuk ez dira kontuan hartu, hala nola ADI (Arbel Digital Interaktiboa). Ildo horretatik, gogoan izan behar da 2011n Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduen %100etan Lehen mailako Hezkuntzako 5. eta 6. mailako gela guztietan teknologia hori daqoela.